



BALIO PROPOSAMENA

Betaurrekoen helburua hobeto ikusteko gaitasuna edukitzea dela kontuan hartuta, gure inguruan betaurrekoak dituztenek euria ari duenean edo-eta hauek lurrintzean ikusteko garaian hainbat arazo izan ditzaketela ohartu gara, horregatik, produktu berri bat sortzea erabaki dugu. Produktu honen izena “argibegi” da, eta bere funtzioa, betaurrekoak lurrintzean nahiz bustitzean hauek garbitzea da, arazo horri aurre egiteko, betaurrekoetan garbigailu bat jartzea pentsatu dugu.

Gure produktua oso erabilgarria eta beharrezkoa dela ikusi dugu gure inguruan. Honek, enpresaren ikuspegitik, onurak ekar ditzakeela iruditzen zaigu, populazio handi baten beharrak asetzen baititu eta ordaintzerako orduan, beharra dela eta eragozpenik gabe ordainduko dutelakoan gaude. Honetaz gain, ekoizteko orduan langabezia dauden horiei lan bat eskaintzeko aukera izango dugu. Gure produktua alderdi kuantitatiboari dagokionez, merkatuan berria den balioa izanik, prezioan askatasun bat hartzeko aukera izango dugula iruditzen zaigu, nahiz eta ez dugun egoera horretaz abusatu nahi. Beraz, alderdi kualitatiboa kontuan hartuta, prezioarekin bat datorren produktua ekoiztu behar dugu.

• Lehiakideengandik bereiz gaitezke honakoen bitartez:

- **Berritasuna:**

Gure produktua merkatuan berria da, izan ere, gaur egun ez ditugu horrelako betaurrekoak kalean ikusten.

- **Prestazioak eta lana erraztea:**

Betaurreko bakoitzari haizetako-garbigailu bat gehituko diogu, hau da, kristal bakoitzean haizetako-garbigailu bat izango da. Lehendik dauden produktuak baino askoz erosoagoa da, euria egiten duenean zein betaurrekoak lurrintzean betaurrekoak kendu gabe argi ikusteko aukera ematen dutelako.



- **Diseinua:**

Gaur egungo dauden betaurrekoei, ez diegu aldaketa handirik egingo. Haizetako-garbigailu bat gehituko diogu bakoitzari, hauek aldaketa handirik jasan gabe. Nahiz eta gehituko diogun tresnak onura handiak ekarri dizkien betaurrekoen erabiltzaileei, ez dute leku askorik hartuko.

- **Lana erraztea:**

Betaurreko hauek betaurrekoak erabiltzen dituzten jendeari, hobeto ikusteko aukera errazten diete. Izan ere, euria egiten duenean, betaurrekoetako kristala bustitzean, haize-garbigailuek, ura kentzen dute, ikusteko aukera erraztuz. Bestalde, lurrundutakoan ere, lurrina kentzeko aukera ematen dute. Beraz, betaurrekoak dituzten jendeari lan asko kentzen diete garbitzen ibili behar ez dutelako.



- **Arriskuen murrizketa**

Produktu honek arrisku askotatik babesten zaitu. Adibidez, betaurrekoak lurrintzean edo bustitzean, normalean ikuspena galtzen dute, eta horrela istripuaren bat izatea heldu daitezke. Hauek izan ezker ez litzateke hori gertatuko.

- **Eskuragarritasuna:**

Gure produktuak eskuragarri egongo dira bi kanaletatik: batetik, gure markaren webgunean, eta bestetik, betaurrekoen denda fisikoetan. Webgunean online erosketak aukera eskaintzen dugu, etxetik erosi ahal izateko, eta denda fisikoetan, bezeroek produktua zuzenean ikusi eta probatu ahal izango dute. Bi aukerak uztartuz, bezeroei erosketak esperientzia egonkorra eta malgua eskaintzen diegu, nahi duten moduan erosteko aukera emanez.

